


1. zikloa | Ama eskola

2018, Erresuma Batua

Zuzendariak: Max Lang, Jakob Schuh

Iraupena: 55'

# Laburpena

Sagu txiki bat poz-pozik dabil basoan. Gosetuta dago eta sabela betetzeko hurren bila joatea erabaki du. Bidean, bera bezain gosetuta dauden azeria, hontza eta sugearekin topo egin du. Hirurek etxera gonbidatu nahi dute bazkaltzera, baina sagua ez da haien asmoez fio eta modu atseginean ezetz esan die haien gonbidapenei; izan ere grufaloarekin hitzordua du! Baina zer da grufalo bat?

Ezagutu Grufaloaren eta haren alabaren mundu liluragarri Julia Donaldson idazleak, haur-literatura modernoan erreferentea denak, sortutako samurtasunez eta balioz betetako bi abentura dira.




2. zikloa | CP-CE1

2017, Euskal Herria

Zuzendariak: Agurtzane Intxaurraga

Iraupena: 75'

# Laburpena

Iratxoek udaberria ekartzen digute urtero. Tim lehen aldiz iritsitako iratxoa da. Feriako soinu erakargarriarekin nahasita, gainerako iratxoengandik bereizi da. Eta Samuel eta Vladek harrapatu dute, zirkuko atrakzio gisa esplotatzeko.

Teresa 6 urteko neska da, eta jeloskortasun handia agertzen du neba txikiaren aurrean. Ferian, Tim ikusi du jendaurrean ikusgai, eta hura gutiziatu du. Timentzat, berriz, ihes egiteko aukera da neska.

Tim Teresaren etxean ezkutatuko da, eta haren babespean biziko da. Elkarrekin, hainbat abentura biziko dituzte, eta lagun bereizezinak izango dira.




2. eta 3. zikloak | CE2tik-CM2ra

2016, Frantzia

Zuzendariak: Jean-Loup Felicioli eta Alain Gagnol

Iraupena: 84'

# Laburpena

New York... Gangster desitxuratu misteriotsu batek Alex zauritzen du, bere atzetik segika dabilen polizia inspektorea. Ospitalean inmobilizatuta dagoela, Alex Leoren laguna egiten da, 11 urteko mutiko bat, zeinak bere gorputz barrutik irteteko gaitasuna duen. Mamu guztiak bezala, ikusezina beste pertsona guztientzat, hegan egiten du eta hormak zeharka ditzake. Aurpegia hautsita duen gizonak, hiria mehatxatuko du birus informatiko batekin. Mutikoaren ahalmen izugarriei esker Alexek ikertzen jarrai dezake.